

El piipilean

Soraluzeko Hamabostekaria 45. alea 2002ko martxoaren 15a



**Emakumeak Soziedadeetan
Bazkide. Bai ala ez.**



**Tornileria-estanzazioa
eta
extruzioa hotzean**




GOL, S.A. Industriak

Sagar Erreka, 19 45 PK

20590 SORALUZE

Tfnoa. 943 75 21 00 / <http://www.gol.es>

Pil bazkide txokoa



**PIL BAZKIDE
ZOZKETA**

kamiseta bat

Aurreko zozketako irabazlea:
57.zenbakia- Frantzisko Lete (Bergara)
(Pil-pileanen kamiseta bat)

Bazkidiekin berbetan



Jaio Ezenarro

Zegaittik egin zara Pil-pileaneko bazkide?

Herriko erreibestia dalako eta batez be euskerazkua dalako, premiñia badaok eta.

Aldizkariko zein zati gustatzen jatzu gehixen?

Entrebistak asko gustatzen jataz. Zorion agurrak eta herriko ipuinak gustora irakurtzen jittuat. Dana irakurtzen juat gustora.

Ondo ulertzen dozu erabiltzen dogun euskeria?

Ez juat ulertzeko bape problemarik izaten. Batua ondo entendiitzen juat eta zuek idazten dozuen moduan, bertakuaua, errezaio.

Eskerrikasko Jaio.

Zeueri. Segi holaxe, lan edarra egitten zabizte ta. Zeoze bihar dozuenian eskatu tranquil.



O.T.

IÑIGO ALBERDI

Zer ote da O.T.? Telebisiñua ikusten bozu behintzat, duda gutxi eukitzeko moduan zare; Operación Trinufo (zela ez?). Badakigu, buelta askoren ostian “Europe’s living a celebration” izango dala Rosak abestuko daben abestixa. Larunbat gabian tabernetan hori da gehixen entzuten dan abestixa. Neri, egixa esaten badotsuet, gustatzen jata O.T.. Ez dot asko jarraitu, baina tira, abesti polittak, intriga pixkat...Bai, zihero alienauta egongo naiz, seguruenik. Zer egingo dotsagu ba?

Tira, baina gaurko bi lerrotxo honek, beste Operación Triunfo bati buruzkoak izango dira; euroari buruzkoak hain zuzen. Atzera begiratuta, Urtarrilak 2ko eguna etortzen jata burura. Elgoibarko KUTXAn lan egiten dotenez, egun gogorra izan zan haura, eta hurrengo egunak.. Geu urduri, eta bezeruak, edadeko jendia geixenbat , oso urduri. Gogoratzen dot zela bezero batek serixo-serixo hauxe esan zostala, nere ohiko “egunon” musikalari kaso egin bare; “Dame louros!”. Bai jauna , euruari ipini jakon izen polittena; LOUROS. Nahikua barre egin dot hau gogoratzen , baitta laguneri kontatzen be. Beste batzuk holako izen kuriosuak erabili dittuzte euria izendatzeko; uros, iros, edo besterik bare, diru-barririk (azkenengo honek denboraren gaineko maisutasun bat adierazten dau) .

Beste alde batetik, jendiak pezetak ekarri dittu, aldatzeko. Hor be ze desberdinak garan ikusten da. Umiak itsulapikuakin, edadetuak karteratxuakin, zinekua poltsakara pezetakin...danak premiña berdinakin. Garrantzitsuena, nere ustez, hau izan da ; aldaketa hau (oso garrantzitsua) uste baino hobeto emon dala. Zerbaitek fallau badau, gobernuko prebisiñuak izan dira, txanponak egitteko orduan. Euro bateko eta biko txanpon gutxi egon dira.

Uste dot, benetan, gure gizartiak pozik egoteko moduan daguala. Bildur gabe esan geinke, bi hilabete atzerago begiratuta, Operación Triunfo bat izan dala. Barkatuko dozue konparaziñua.

Bueno, agur bero bat daneri. Porzierto, Elgoibarko edadetuak esaten dabenez plentxiatarrerri “betitxik” soberanuak deittu dozkue. Ganorazkua, itxurakua, pixkat berria...Ba hori lagunak, izenagatik hastia be aukera txarra ez dala.

Bitxartian; tirikitena beltza morena, ontza bat txokolate goizian, onena.

Telegrapak

Hau da saltsa, E.G.ak, G.E.G. bihurtuko dira? Gizonezko Elkarte Gastronomikuak? ala E.A.G.E.G.ak izango dira? Erdi Aroko Gizonezkuen Elkarte Gastronomikuak. STOP. Korrika apustuarena zapatu honetan egingo dabe. Ikuskizun negargarria izango da. Dударik barik mezetara juateko egun aproposa. STOP. Arrizabalaga pareko zulaketa lanetan, materia dizdiratsu bat topau dabe. Urria bada, laster dira amerikarrak Plaentxian. STOP. Interneta, askorendako: jentia narru gorrittan ikusi eta munduaren bestaldian daganari narrazkeriak esateko tresna da. Konekta Zaitetz! STOP. Polikiroldegiko lanak zer? Nik ez, nik ez, nik bez... Beste nunbaiten berrixa egittia onena. STOP. Hil honetan hasiko dira Pil-pileanekuak baserriz baserri, datu bila. Pastak eta patxarana preparatu eta gorde balixozko gauzak. STOP. Fatxadak eraberritze ko dirulaguntzak be hor dare, mamin zaharra makillatzia alperrik da baina... STOP. Bai Euskarari prozesu estrategiko pilotua aurrera doia. Helburua: euskararen hegaldixa pilotatzia, erabilera eta ezagutzarantz, errespeturantz.... STOP. Aio pelaiol! Datorren alerarte!



Argitaratzailea:

Pil Pilean Kultura Elkarte
Frontoi kalea 5. behe, PK 27 - 20590 Soraluze.
Telefonia 943 75 13 04

Zuzendaria: Gurutze Ariznabarreta

Erredakzio burua: Egoitz Unamuno

Erredaktoreak: Enara Agirre, Eguzkine Aldazabal, Gurutze Ariznabarreta, Jon Basauri, Xuban Catalan, Ugaitz Catalan, Aitor Madrid, Jon Oregi, Oier Oregi, Eduardo Pombar, Egoitz Unamuno eta Arianne Unamuno.

Publizitatea: Jon Oregi eta Jon Basauri
(943751304 tel.)

Banaketa: Pil Pilean **Ekoizpena:** 1.850 ale

Inprimategia: Gertu Koop. **Azala:** Aitor Madrid
Diseinua eta Maketazioa: Aitor Madrid **I.Z.K.-a:**
G20696563 **Lege-gordailua:** SS-537-2.000

Pil Pileanek ez du bere gain hartzen aldizkariko esanen eta iritzien erantzunik.

Aldizkari honek erakunde hauen dirulaguntza jasotzen du euskara bultzatzeko.



SORALUZEKO
UDALA



EUSKO
JAURLARITZA



GIPUZKOAKO FORU
ALDUNDIA



Non zer?

Ataixa.....	3
Zerbitzuak.....	4
Iritzia.....	5
Zer berri?.....	6 / 7
Erreportaia.....	8 / 9
Kutura.....	10
Kirola.....	11
Kale kantalian.....	12
“Kirolak”.....	13
Kontuak kontu.....	14

Soziedadien eta emakumien berri jaso dogu ale honetan

Zorion agurrak



Ainhoa Gallastegi eta Ina Gallastegi
Zorionak!!!
02 - 3 - 15 eta 02 - 3 - 13
Hau da bikote maittagarria hau. Familiariaren partez.



Jose Luis Catalan
Zorionak!
02 - 3 - 3
Fenomeno! Askok maitte zaittugu!
Etxekuen partez.



Haritz Sudupe eta Iñaki Larrañaga
Zorionak!!!!
2002 - 4 - 12 eta
2002 - 3 - 30
Muxu bana.
Etxekuen partez.



Nelia Valverde
Zorionak!!
Musika zuzendari on eta jatorrenari.
Koadrilakuak.



J. M. Salaberria
Zorionak!!
02 - 3 - 12
Orduan bai sasoia eee?? jubilaue zarantik tripija gorutz doia ee?.Etxekuak



Ione Blanco
Zorionak!!!
03/06
Baina baina zelako handixa egin jakun gure neskia.
Etxekuak.



Beñat Catalan
Zorionak pirata!!!
Mendira juandakuan kremia emon.
Koadrilakuak



Markel Arizaga eta Mikel Araneta
Zorionak!!!!!!
02.-3 -20, 02.- 3 - 24
Zelako guapuak zaretzen!
.Zuen miresle batzuk.



Iker Benito
Zorionak txapeldun!
2002.- 3 - 20
Oraingoan
10 udaberri.
Aita, ama eta Iosu.

Agenda

Apirilaren 6xan, 14:30etan Txurruka Jatetxian

Gabolatz kalean jaiotako en bazkarixa.
Izena emoteko: 943 75 15 81

Martxuaren 17xan, arratsaldeko 16:00etan

“Euskal Herriak Hordago!” Mus txapelketa

Izena emoteko: Arranuan.

hildakuak

Felipe Egaña Irazabalbeitia

Pelipa Legaristi Vila

jaiotakuak

02/18 Jon Ander Murgizu Bedaio

03/01 Adur Odriozola Rolo

01/17 Onar Rascon Velazquez

02/01 Izaro Usobiaga Ibazeta

Gutunak

26.-Kapitaletik

Nik ez daukat ezer berezirik komarka ezberdinetako inguru ruralekoekin baina esan behar dut, jaisi berrien euskera itxi hori dela eta, edo nagusiena, edo separatisten euskal gaizto hori edo ikastolakoena, esan behar dut kapitalera heltzean konprenitu egiten dela arrazionaltasuna kastellanuan dagoela.

Hemen kapitalean, ABC irakurri ahal dugu edo Ansonen “La razón” izenak berak dioen moduan “arrazoia” eta nire moduan arrazionaltasunera aldatu direnak badaude, hala nola Mario Onaindia. Azken hori agian itxura rustikoegia duelako ez da larregi ateratzen medioetan baina jakin dut Redondoren tesien alde agertu dela, erakutsiz horrela arrazionaltasun mailarik handienetakoa, zeren, gogoratu behar da, Grezia Klasiakoan, filosofia gorenaren jatorrian, forma borobila, forma esferikoa, koadrilakuak erakusten hurreratze apurren bat arrazionaltasunera, baina, bistan dena, ez da nahikoa inondik inora. Txapelaren azpian dagoen buruan haizea besterik ez badago alferrik da.

Hala ere jakinean nago Sorraluzen ere “El diario Vasco” erruz irakurtzen dela eta periodiko horrek badu arrazoiren markarik, eta hor Aulestia, Calleja persegitua, Arregi edo Sabater filosofo emerituaren moduko lumak agertzen dira, horrela inguru rustikoei arrazoiaren

bideak (bururatzaren direnak erderara pasatzen) erakutsiz. Eta poztekoa da nabaritzea nola kastellanu nagusitzen eta zabaltzen doan inguru remoto horietan ere, joera “recalcitranteak” arrazionaltasunari buruz dauden arren oraindik. Celak era bazuen esan joera horiek, zorionez, desagertzeaz daudela Euskal Herrian ere.

Roman Garmendia
N.A.N.:15.356.909

Alkatearen mutazioak

Gizaki bizidunen artean aldaketak ematen zirela, eta horiek, kalteak baino onura gehiago zekartela konturatutik, adaptazioa izan zen Darwinek aztertu zuen gaia. Egoerari hobekien moldatzen zekienak bizi itxaropena luzeagoa izanik, belaunaldien artean ematen ziren aldaketa genetikoak ohartu zen ikerlari ospetsua.

Sorraluzen, eta batez ere Udaletxean, mutazio prozesu batean sartuta gaude aspaldi honetan. Horren testigantza aurrekontuen afera gertatutakoa. Lehengo, Gobernu Batzordetik eta Batzorde buruetatik alkateak bidali bagintuen, oraingoan, beste egoera batera adaptatu nahian edo, gutako bati etxera deituz, aurrekontuak gure onarpenarekin aurrera ateratzea gustatuko litzaiokeela adierazi zigun. Udaletxean bildu ondoren, gure interlokutoreak, minimoak izan behar ziren hainbat proposamen, mahai gainean jarri zizkion.

Aurrekontuak onartu baino lau egun lehenago, berriz deitzen digu alkateak, gurekin hitz egin nahi duela esanez. Hurrengo egunerako geldituz, gutako bik Udaletxean ospatzen dugun bileran, eskaera zehatz hauek egiten dizkiogu aurrekontuetan sar zitzan: Udalbiltzari laguntza ekonomikoa eskeintzea; Euskera teknikariaren postua ziurtatzea; Emakumearen Aholku Batzordea sortzea; Udaleko lanpostuen betebeharrak finkatzea; Etxe hutsen zerrenda eguneratzea; Kiroldegiko frontoia irekitzea; Futbol zelairako bidean argia jartzea; Herriko talde kulturalekin programak adostea.

Eskaera guztiak bidezkoak zirela, Udalbiltzarena ezik, alkateak erantzun ondoren, ea hori sinatuko zuen galdetzen diogunean, ezezkoa jaso genuan. Zertarako deitu gintuen esanez amaitutzat eman genuen bilera luzearen ondoren.

Astelehenean egindako Bilkuran ezezkoa eman genien aurrekontuei eta alkateak erabilitako prozedurak kritikatu egin genituen.

Material genetikoak elkartzean, beste organismo berri bat sortzen da, ezaugarri genetiko berriekin, hobeto edo txartoago adaptatua. Aldaketa ezegokiei ostera, mutazioa deitzen zaio, askotan arazo baten ondorioa izaten baita, nahiz eta, Udaletxea kasu, irudia gordetzen ahaleginak egin.

Zer irizten dotsazu?**Zer irizten jatzu emakumiak
soziedadietan bazkide sartzia?**

Federico Bengoa
76 urte Jubilatua

Neri ondo pentzatzan jata. Sartzen ez lagatzia ohitura kontua dala uste dot, baina emakumiak be gizonen moduan sartu biharko lirake.



Nerea Orbea
32 urte Irakaslia

Biharrezkua ikusten dot. Holan soziedadietan beste ikuspegi bat sartuko litzake ta modernizau be ingo lirake.



Jose Cruz Expósito
56 urte Ingenierua

Oso ondo. Berak sartzia nahi badabe ez dago problemarik zertan egon. Garai batian soziedadiak zeuken esanahixa galdu einda ta gero eta soziedade gehixaok onartzen dittue emakumiak.



Mertxe Arenaza
41 urte Etxekoandria

Oso ondo, lagunekin elkartzeko toki bat eukitzeko ez da ta inporta emakumia edo gizona izatia. Afarixak... egitteko toki atsegin bat eukitziak ez dauka sexuakin zerikusirik.



Rafael Guenetxea
42 urte Langilia

Nahiko ondo. Orainarte ez sartzia soziedadien politikia izan da. Nere ustez emakumiak sartzia ona izan leike elkartiendako.



Sabina Eizagirre
55 urte Etxekoandria

Fenomeno. Guk be, gizonezkuek bezela, aukeria euki biharko genduan soziedadietan sartzeko. Gaur egun iada ez dago diferentziarik emakumien ta gizonen artian.

Ugaitz Catalan eta
Enara Agirre

Javier Alonso Zelaieta
Hortz klinika



Mediku estomatologoa
434 zenb. kol.

Atxuri, 1 - 1. eskuma
Tfnoa 943 75 16 13

Instalaciones Kalebarren S.L.



**GAS INSTALAKUNTZAK
ETA PROIEKTUAK
KALEFAKZIOA ETA AIRE EGOKITUA
ITURGINTZA OROKORREAN**

20590 SORALUZE TEL. / FAXA: 943 75 23 07 ESKUKO TEL.: 608 67 40 70 / 607 40 37 92
48017 DEUSTU TEL.: 944 75 99 60 POSTA ELEKTRONIKOA: KALEBARREN@INICIA.ES

Udal kontu

Karakateko behatokiaren inaugurazioa

Joan zen igandean inauguratu zuten Karakateko Behatoki berria. Soraluze-ko, Elgoibarko eta Debako alkateak izan ziren inaugurazio zinta moztearen arduradunak eta Soraluzeko dantzari eta txistulariek alaitu zuten ekitaldia. Soraluzeko Alkatearen hitzetan, elkartasunaren ikurra da mendia eta "ea zaintzen eta herri honetan elkar ulertzeko bide bihurtzen asmatzen dogun".



Elektrika etxearen balantze negatiboa



Udalak ezagutzera eman dituen datuen arabera, Sologoen Elektra Etxeak balantze negatiboa izan du 2.001. urtean. Guztira 2.014.004 pezeta fakturatu ditu, 2.00. urtean fakturaturako 2.315.513 pezetan aldean. Udaleko arduradunen esanetan, balantzea negatiboa izatearen arrazoia, 2.001.a oso urte lehorra gertatu dela izan da.

Udalari donazioa

Jose Maria Badiola Argarate jaunak, 2.300m² ko lur saila eman dio Udalari. Lur sail hau, Olako trenbideko tunelaren parean, bidetik ibaira bitartean dagoen saila da. Udaletxeko aparejadorearen hitzetan "ondo etorriko jako Udalari terreno horrek eukitzia, gero lanen bat egin bihar bada edo...".



Manifestazioa mugagabe atzeratu da

Martxoaren 8rako iragarrita zegoen manifestazioa mugagabe atzeratzea erabaki du Gobernu Batzordeak. Jakinarazi digutenez, manifestazioa atzeratzearen arrazoia, beronen inguruan alderdi batzuek, komunikabideetara joz egin duten erabilera interesatua izan da.

Polikiroldegiko lanen lehiaketa hutsik

Joan zen asteleheneko Gobernu Batzordean, aho batez Polikiroldegiko 2. Faseko lanen lehiaketa hutsik deklaratu erabaki zen. Orain %10 gehiago igo beharko da, lanen trukean eman beharreko dirusaria, eta Udalean esan digutenez, oraingoan hitzarmen bat lortuko den itxaropena dute.

Fatxada eta teilatuak berritzeko dirulaguntzak

"Zeuk ere baduzu Soraluzearen itxura edertzen laguntzeko aukera". Horrelaxe dauka izena Udalak eta Debegesak martxan jarri duten kanpainak. Kanpaina honen bitartez, Urtarrilaren 7an egindako Osoko Bilkuran fatxada eta teilatuak berritzeko dirulaguntzen inguruan hartutako erabakien berri eman nahi da. Udalaren dirulaguntzez gain, Obra Zergaren %90aren itzulketa eta Eusko Jaurlaritzaren laguntzak ere badaude, etxe edo eraikinaren aintzinatutasun eta kokapenaren arabera izango dira. Informazio gehiago, Udaletxeko bulegoetan jaso dezakezue.



SAN ANDRES Iturgintza

*Iturgintza, Gasa, eta
Berogailuak
Sukaldeak eta bainuak*

Errebal kalea 2 behea
Tfnoa 943 75 16 46



MENDIZABAL

OKINDEGIA

Kalebarren, 10
Telefonia 943 75 20 91
Baltegieta, 6
Telefonia 943 75 13 99
SORALUZE

Ikastetxe berria “Viuda de Azkarate”n



Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak bere oneritzia ematen badu, datorren urtean, “Viuda de Azkarate” edo “Amezuanekua” esaten zaion tailarrean jasoko dituzte eskolak, Lehen Hezkuntzako 3. 4. 5. eta 6. Mailetako ikasleek.

Urtebeterako egoitza

Ekainetik aurrera Plaentxi Herri Ikastetxeko eraberritze lanak hasiko dira eta, egoitza berria aurkitzeko beharra sortu da. Udalak, ikasleei inguruko herriren bateko zentzuren batera mugitu beharra eragotzi nahian, bere gain hartu du egoitza berria bilatu eta alokatzeko ardura. Dagoeneko, Udala eta tailararren jabeak akordio batera heldu dira eta orain, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saila izango da aldaketa egiteko bere oneritzia eman beharko duena. Hain zuzen, ostegun honetan bertan, Hezkuntza Sailak bidalitako aparejadore bat izan

da lokala ikusten eta datozen egunetan adieraziko dute zein den Sailaren erabakia. Mertxe Epelde Plaentxi Herri Ikastetxeko zuzendaria gustora agertu da kanpora joateko beharra sahiestu eta ekainean egoitza berria prestatzen lagako dioten itxaropena duelako, “hola irailian dana prest egongo da eskolak hasterako”. Era berean, Udalarengandik eta bereziki alkatearengandik jaso duten laguntza ere azpimarratu nahi izan du.

1. eta 2. Mailakoak ikastola zaharrear

Ikastetxeko zuzendariak azaldu digunez, Ikastola zaharrear, gaur egun Haur Hezkuntzako gelak dauden eraikinean, 2. eta 3. Pisuetan, gela bana gehiago ateratzeko asmoa dago. Beste bi gela horiek, 1. eta 2. Mailetako ikasleei eskolak emateko aprobetxatuko litrateke eta hortaz, hauek ez lukete Olako egoitza berrira mugitu beharrik izango.

Lapurretak Kakuanian eta Bolian



Joan den martxoaren 8an, lapurreta izan zen “Kauanekua” moduan ezagutzen dan Gabolatx kaleko supermerkatuan. Gehienbat, janari eta edariak eraman omen zituzten baina kantitate dexentean. Martxoaren 12ko gabean Bolian egin zuten lapurretan eta kaxako dirua eraman zuten.

Segiren Ilegalizazioaren aurka

Joan den otsailaren 5ean ilegalizatu zuen Garzon epaileak Segi gazte erakundea. Bi egun aurretik, ilegalizazioaren salatzeke, 17 gaztek gose greba mugagabeari ekin zioten Iruñeko parrokiaren batean. Martxoaren lehen berriz, “hemengo egoeria Europan be ezagutu deitzen”, Bruselasera joan ziren Segi gazte erakundeko 1.000 lagun inguru. Sorluzetik ere joan ziren hainbat lagun eta jakinarazi digutenez, hango jendea “ziharo harrিতa gelditu zan hemen gertatzen danan berri emon zotsagunian. Batez be ilegalizaziño eta torturen kontuekin”. Azken asteetan izandako atxiloteta “masiboek”, jendeari “zer pentsatu” eman behar liokeela uste dute Segikoek.

Egoitz Unamuno

ITUR iturgintza

**Iturgintza, Gasa
Berogailuak
Sukaldeak eta Bañuak**



Santa Ana, 20 Behea
Tlfonoa: 943 75 12 41
Sakeleko tlfonoa: 639 17 96 96



BELARZAK
LORADENDA ETA BELARDENDA
EROSKETAK ETXERA DARAMATZAGU

Santa Ana, 2 bajo
Teléfono 943 - 75 30 11
Móvil 646 43 90 40
20590 SORLUZE (Gipuzkoa)



Emakumeak Soziedadeetan bazkide. Bai ala ez?

Pasatu berri da emakume langilearen eguna. Eztabaida eta adierazpen ugari egin dira egunotan emakumearen eskubideen inguruan. Guk elkarte gastronomikoen gaiari heldu diogu, lehentasunezko arazoa ez dela jakin arren, egunerokotasunean duen garrantziagatik lantzea merezi duen gaia delakoan.

11tik 7tan onartzen da emakumea bazkide moduan: Jo dugun 11 elkarteetatik 7 tan onartzen dira emakumeak bazkide moduan. Emakumeak bazkide izatearen aurka dauden elkarteetan ere, denetariko eritziak jaso ditugu. Batez ere gazteak dira emakumeak ere bazkide moduan onartzeko arazo gutxi denak baina pertsona nagusi askok ere onartu behar liratekeela uste dute. Elkarte askotan, bazkideen alargunak izan dira, bazkide izateko eskubidea gizonetzko bakarrik onartzen dieten estatuak aldarazi eta emakumeari elkartetarako bidea zabaldu diotenak. Herriko elkarte gehienetako ordezkariekin izan gara eta gutxi gora behera elkarte bakoitzak duen jarreraren berri izatea lortu dugu.

Lagun Maitean botazioa: Lagun Maitea 1969. Urte inguruan sortu zen eta gaur egun 52 bazkide dira bertan. Oraindela gutxi, elkarteko bazkide izan nahi duen emakume baten eskaria jaso dute. Emakume hau zendutako sozio zen gizon baten alaba da eta aitaren tokia hartu nahi du. Asteazken honetan bertan egin dute botazioa Lagun Maiteako bazkideek eta estatutuak aldatzea erabaki dute. Estatutu berrietan, emakumeak bazkide egiteko aukera dutela jasotzen da eta beraz hemendik aurrera



Allegro elkartearen afalosteko kafetxea hartzen.

emakumeak ere aukera izango dute Lagun Maiteako bazkide egiteko.

Urkia Zelai: Urkia Zelain dauden bi elkarteetatik zaharrena, 1.970. urtean sortu zuten. Gaur egun 10 bazkide dira, 9 gizonetzko eta emakumezko bat. Emakumezko bazkidea, bere gizona hil zenean egin zen sozio. Bazkide batek esan digunez, "ez da desberdintasunik egiten emakume eta gizonen artian, koinatzen be berak egiten dabe guk baino gehixao ta ba... hobe).

Izadi Aterpean bai: Urkia Zelaiko Izadi Aterpea elkarte 1.990. urtean sortu zuten. Orain 5 bazkide dira eta libre dago emakumeak bazkide egitea.

Arriogain seguraski ez: Arriogain elkarte Gila zubiaren bazter batean dago. Guztira 72 bazkide dira. Orainde-

la urte asko, bazkide batek bere alaba bazkide egiteko proposamena egin omen zuen baina Batzarrean ez omen zuten onartu. Gaur egun, alde bietako sentsibilitateak daude, batez ere gazteak dira emakumeak ere bazkide egitearen alde daudenak.

Alkazarren ez dago erabakita : Alkazar elkarte 1.950ean sotu zen. Herrian sortu zen lehen elkarte da eta gaur egun 18 bazkidek osatzen dute. Azken hilabeteetan elkartearen berritze lanetan dihardute eta izena ere aldatuko diote elkarteari; Ibai-Eder izango da hartuko duen izen berria. Emakumeak bazkide izatearen inguruan sentsibilitate ezberdinak omen daude baina estatutuetan eta bestela ere ez omen da orainar-

ELIZPE

h o r t z k l i n i k a

Elizburu, 3 behea
9 4 3 7 5 2 5 6 7
20590 Soraluze

JABIER ALBERDI

HARATEGI
ARTISAU ERARA

ESPEZIALIZATUA

KALITATEKO EUSKO LABELA DUTEN
PRODUKTUETAN.

Errebal kalea 24
Tfhoa 943 75 19 32

tean gaiarekiko erabakirik hartu.

Atxantxaboletan bai: Atxantxaboletako elkarte duela 28 urte sortu zen eta gaur egun 8 bazkide ditu. Elkarte honetan bikoteak dira bazkide eta biek dute giltza eta erabakietan hitza.

San Inazion bai: 24 bat urte dira San Inazion elkarte sortu zutela. Orain 10 bazkide dira eta horietatik bat da emakumezkoa. Emakume honek hil zen senarraren lekua hartu zuen eta hasieran eztabaida izan bazen ere, estatutuak aldatu ziren eta orain ez dago bereizketarik.

San Andresen bai: San Andres elkarte 1.977. urte aldera sortu zen eta gaur egun 36 bat bazkide ditu, horietatik 2 dira emakumeak. Orain urte batzuk hil zen bazkide baten andrea sartu zen bazkide eta ordutik ez dago bereizketarik seksu kontuan.

Mahastian ez: Mahastia oraindela 37 urte inguru sortu zen. Gaur egun 76 bazkide daude elkartearen, denak gizonezkoak. Mahastiako estatutuetakoa artikulua batean jasotzen da bazkideen sekuren inguruko erabakia; "Izan daiteke



San Andres elkarteko bazkideak batzarreko afarian.

elkarte honetako bazkide; hala nahi duena eta baldintza hauek betetzen dituen; gizonezkoa eta 21 urtetik gorakoa dena".

Allegroan aukera gutxi: Allegro elkarte 1.960an sortu zen bazkide dira momentu honetan. Izan omen dira bazkide izateko aurkeztu diren emakumeak baina batzarrak orainartean ezezkoa

eman die. Dena dela sentsibilitate ezberdinak daudela jakinarazi digute.

Arranoan bai: Arrano elkarte 1.985ean zabaldu zuten eta gaur egun 80 tik gora bazkide ditu. Hasieratik onartu dituzte emakumeak bazkide moduan eta hori dela eta, asko dira emakumezkoak bazkideen artean.

Egoitz Unamuno

Bazkidiaren ahotan

Ohiana Laskurain (San Andres Elkarteko bazkide)

Zergaitik sartu ziran San Andresko soziedadian?

Bueno ba, euki neban aukeria sartzeko. Zela nere aitta eta tio soziuak diran ba...

Zer topau dozu?

Esango dotsut gauza bat; San Andresen berdintasuna badaola, baina beti ikusten dala; neskia eta gizonak. Badao matxismo puntu bat. Eta horren adibide bat; jaixetan erabaki bihar zanian lana nun egin eta, neri segiduan



esan zosten "zuk sukaldian egin zeinke lana!".

Zer pentsatzen jatzu emakumieri sozio izaten ez lagatzia?

Gaur egunian hainbeste berdintasun egonda, pixkat kontrakua da ezta?

Eta esaten dabenian "egittia dauke emakumiak euren soziedadia"?

Ez, baina gero onena da, soziedade danetan, garbitzen dabena andria izaten dala.

Bazkide anonimoa

Aurkitu ditugu emakumeak elkarteetan sartzearen aurka dauden gizonezkoak ere baina ez dute euren argazkirik ateratzerik nahi izan. Hona hemen aurka dauden bazkideetako batekin izan dugun elkarrizketa:

Onartuko zenduke sozio moduan emakumezkorik?

Ez. Sartzan laga bai baina bazkide moduan ez. Badare Donostian da soziedade ezagunak emakumieri sartzan be lagatzen ez dotsenak baina hori gogorra dok.

Zergaitik ez dozu nahi emakumiak sozio izaterik?

Lengo tradiziñua mantentziarren. Andrak nahikua agintzen juek etxian, da han sartzan badittuk, akabo ba... berak aginduko juek han be.

Zuk uste dozu aldatuko dala hori legiori?

Oindio ez. Gerora izan leikek. Gaztiok danok elkarrekin ibiltzen zarie eta beste kontu bat dok, baina zuek be konturatuko zarie ezkontutakuan...Neuk ez juat uste baietza emongo dotenik.



HNOS. BENITO ANAIAK

ETXEKO ETA SUKALDEKO ALTZARIAK

Eskatu presupuestoa konpromisorik gabe

Santa Ana, 26 • Tel. y Fax (943) 75 20 47 • 20590 SORALUZE-PLACENCIA (Gipuzkoa)

Telefona 75 24 09

ARRANO tabernia


"Giro euskalduna eta sanua"

ETORRI ETA GOZATU

EUSKAL PRESO, DEPORTATU ETA EXILIATUAK



etxera



Aurrera doaz Ezoziko ermita berrizteko lanak

Ezoziko ermita eraberritzeko lanak aurrera jarraitzen dute. Joan zen urtean ataria eta teilatua konpontzen hasitako lanak ia amaitu dira. Barruko lanak aurreratuta daude eta dagoeneko hormetako harri gehiena aterata dago. Hala ere oraindik lan handia omen dago egiteko. Asmoa, zoruan harrizko galtzada eta

egurrezko guneak jartzekoa da. Jokin Mitxelena herriko abadearen hitzetan, "ermita oso ederra geldituko da barrutik". Balio handiko margolanen bat agertu ote zen zioten zurrumurruen inguruan berriz, aurkitu zena pintura arrunteko kapa bat zela adierazi zigun Jokinek.



Delicatessen Gaztelupen

Delicatessen, Deba Ibarreko Jazz talde berriak jo zuen Gaztelupe tabernan martxoaren 1ean. Kontzertu animatua izan zen, jazz doinu ezagun asko jo zituzten eta tartean euren konposizioak ere bai. Erritmo biziko doinuak izan ziren gehienak eta ostiral gauari hasiera eder bat eman zion.



Sagardotegiko ezkontza

Martxoaren 8an ezkondu ziren Bergarako Jardun eta Soroluzeko Pil Pilean. Sagardotegian izan zen ezkontza eta 50 gonbidatu inguru izan ziren. Trikitilari eta bertsolariek kantuan egin zieten ezkonberriei eta afalostean dantza saioa izan zen. Hortik aurrerakoa, imaginatuko duzue. Urte askotarako!

Bai Euskarari. Helburuak zehazteko ordua

Joan zen urtearen hasiera ezkerotik martxan da Bai Euskarari prozesua Soroluzen. Azkenean hiru dira prozesuan partehartzen diharduten sektoreak; kirol alorreko elkartek, irakas-kuntza alorrekoak eta kultura arloko elkartek. Azken hilabeteetan, gizarte eragileek prozesuan parte hartzeko hitzarmena sinatu zutenetik, alorrez alor euskarak bizi zuen egoeraren inguruan gogoeta egiten jardun dute gizarte eragileek. Joan den astean, talde edo elkarre bakoitzak euskararen inguruan zein helburu lortu nahi dituen zehazteko bilerak egin zituzten.

Motibazio saioak



Lehenengo saioa martxoan egingo dute eta guztira beste lau saio izango dituzte; Hizkuntzaren inguruan, Nola galtzen da hizkuntza bat eta nola berreskura daiteke, Hitzunaren inguruan, Hizkuntzaren normalizazioa eta Hausnarketa izango dira saioen gaiak. Motibazio saio hauek, eskualdeko ikastetxeek martxan jarritako hizkuntza normalizazio programaren barruan antolatuta dira. Ikasleen artean euskararen inguruko hausnarketa prozesu bat eragitea da saio hauen helburua.



Lakuesta

Optika 

Ikusmen arazoaren frogak eta argibideak

Argazkiak errebelatzen ditugu

Santa Ana, 22 C- behea
20590 Soroluz
Tfnoa 943 75 30 59

Lonbide

taberna

*Pintxoak
Ardoak, kafeak eta likoreak*

**Errabal kalea, 9
Tfnoa 943 75 14 07**



Mendizaletasuna

Heriotza batek ilundu zuen Ibilaldi Neurto arrakastatsua



Joan zen igandean, 750 mendizale baino gehiagok hartu zuten parte Soraluzeako Mendi Taldeak antolatu zuen Ibilaldi Neurtoan. Eguerdiko 13:00ak aldera, Debatar mendizalearen heriotzak egun arrakastatsu bat izan behar zuenaren dizdira ilundu zuen.

Partehartze handia

Eguraldia lagun, goizeko 8:30etan ekin zioten mendizaleek ikastolako frontoitik mendigainerako bideari. Ofizialki izena eman zuten 726 pertsonen artean, 549 neska mutikoak ziren eta 177 nagusiak.

Aurreko egunetan egindako eguraldi kaxkarra zela eta, bidexigor guztiak lokaztuta zeuden eta berez aldapa handia bazen, bide lokaztuek ez zuten batere lagundu igoeran. Mendigainera igo eta Urkiazelain hamarretako eder bat jan eta gero, berriz ere ikastolako frontoira jeitsi ziren diploma eta erragalien bila.

Debatar baten heriotza

13:00ak aldera, Guenetxetxo azpiko bidean, 46 urteko Debatar mendizale batek bihotzekoa izan zuen. Kasualitatez, momentu horretan bi mediku ziren inguruan eta lehen sorospenak eman arren, ez zuten bere bizia salbatzerik izan. Berehala, suhiltzaileak eta Urkia

Zelain zeuden DYako kideak joan ziren ezbeharrak gertatu zen lekura. Ezbeharraren lekura heltzeko zeuden zailtasunak ikusita, elikoptero bat ere urreratu zen ingurura baina dagoeneko bizia galduta zuen mendizalearegatik ezer egiterik ez zegoela jakinda, ez zuen parte hartu beharrik izan.

Aipatu behar, DYako herizain batek, bizkarrean lesioak jasan zituela erreskate lanetan ziharduela eta beste andre batek ere ondoeza sentitu zuela. Biak Mendarora eraman behar izan zituzten.

Antolakuntza bikaina

Azpimarratu beharrekoa da, antolatzaileek egunaren antolaketan eta batez ere bideak garbitzen egin duten lan bikaina. Aurrerantzean guztion ardura izango da, berriz garbitu eta zabaltea lortu duten bidea, behar bezala zaintzea. Antolakuntzaren partez eskerrak eman nahi dizkiete partehartzaileei eta lagundu zuen jende guztiari.

Futbola

Emaitzak

KADETEAK:

-SORALUZE 0 – BEASAIN 1

-SORALUZE 2 – URKI 0

JUBENILAK:

-ELGOIBAR 1 – SORALUZE 1

-SORALUZE 2 – SEGURA 1

REGIONALAK:

-SORALUZE 1 – PEDRUSKO 1

-BERGARA 1 – SORALUZE 1

Pilota

Deba Arroko Txapelketa finalerdietan

Deba Arroko Txapelketa finalerdietako atarian aurkitzen da. Ligilako azken jardunaldia baino ez da falta jokatzeke eta bi soraluzetar finalerdietarako sailkatu dira. Antton Alberdi gazte mailan eta Jon Arrieta nagusi mailan.

Kadete mailan Ruben Hernandez eta Aitor Atxotegik jokatu dute, eta garaipenik lortu gabe kanporatuak izan dira. Onar Muguruzak ere jokatu du txapelketa honetan, baina eskuko arazoak bitarteko, ezin izan ditu partidu guztiak jokatu eta 3. postuan sailkatuta finalerdietatik kanpo gelditu da.

Jon Varela eta Aitor Atxotegik Zaramagako txapelketan final laurdenera iritsi dira. Bertan 18 eta 14 galdu eta kanporatuak izan dira.

Jon Arrietak Tolosan 22-14 irabazi zuen Lasa-Ormazabalena kontra semifinaletan. Bergaran Pentekostetan Muguruzakin batera jokatuko du.

Eibarren kontra ostegun honetan eta ostiraldian Zaramagan semifinallak. Huizi-Ruizen kontra.


Xuban Catalan

Kontulan Aholkularitza S.L.

Enpresa aholkularitza
Jabe Elkarteak
Aseguruak

Santa Ana, 13 - 1 ezk.
Tlfnoa: 943 75 17 82

20590 Soraluze
GIPUZKOA



Kiru Muntaiak

Blas Elizburu Kortabarria
Sukalde, enpotratu
eta tarima flotanteen instalazioa eta salmenta.

Errekaldia, 30
Tfnoa 943 75 13 12
Eskuko tfnoa 670 05 18 20

Aitor Prieto

“Espaziora kohete baten juatiari ez notsake ezetzik esango”

Oinguan kale kantalian baino kupelan aldamenian izen da berriketaldixa. Txotx!etik txotx!era biluztu dogu gure lagun Aitor eta berak egin dosku umoriaren “aitormena”. Geuretako be eguneko momenturik onena izan dala esateko moduan gare eta erantzunok...kafe “konpletuan” lezkotxiak.

-Zure buruaren erretratuta

Plazentziako personaje ona, guapua eta elegantia

-Zaletasunak

Kirola eta juergia.....ta irakurtzia be asko gustatzen jata.

-Kolorea, abestixa, lekua, erropia eta animalixia

Urdina, aitormena, “Zeruak itxaron dezake”, gabolatx, bakeruak eta txindurria

-Eguneko momenturik onena

Bazkalosteko kafe konpletua, puru ta guztikua. Dudarik barik gaiñera eeee!! hamarretarako ixa, bazkalorduakin pentzatzen egoten naiz

-Ze eruan bihar dau mendira doianak

Patata tortillia eta sardau botilia

-Hiru desio

Zorionsu izatia, osasuna izatia ta primitiban 6, neuk bakarrik azertatzia

-Zetan emoten dozu denbora asko

Pentzatzen

-Lanik onena

Aberatsa izan ta lanik ez eittia

-Ezin dituzu jasan

Faltsuak

-Tentazinoren bat..

Asko...jooooo...asko

-Saiatzen zara...

Egunian egunian hobia izeten

-Bapo geratzeko modoko bazkaixa

Ahate foie, embutiduak, txuletia eskozesa eta kafe konpletua ardaun onakin eeee!!!

-Marrazki bizidunetako ze pertsonaiakin geratuko zinake?

Markon tximiñuakin...

Bertso Begiz

*Prieto gizona ez dago baina
oso “estua” ere ez,
burua argi eta mingaina
beti mugitzen dau artez.
Ixildu ai faborez!
bestela hilko nok barrez.
Proto haundi halakua!
Ardo, jan eta txistezalia,
Plaentxiar klasikua.*

*(Doinua: Iparragirre abila...)
Etxebarri*



Aitor Prieto

-Liburu bat idazteko gaixa

Zoramena

-Pelikula baten, ze paper egingo zinu ke

Gauzak gaizki urtetzen jakozen bateron batena

-Zeri ez zenkixoke ezetz esango

Espaziora koetian juatiari ez notsake ezetzik esango

-Ze botere eukitzia gustauko litza kizu

Beste pertsonen pentzamentuak ezagutzeko boteria

-Aholku bat Plazentziarrei

Ufff....Ederra naiz ba ni aholkuak emoteko....

-Noiz, nora, zeinekin eta zetara?

Edozein momentutan, edozein leku-

tara, merezi daben pertsona batekin, berak nahi dabena eittera

-Ez da sekula ahaztu bihar

Zeinek maitte zaittuan!!

Txistia...

Elkartzen dia Katalan bat , madrileño bat , plaentxiar bat, eta esaten dau katalanak: ba ..nere aitta bomberua da ta sutia dauanian ordu erdi baino lehenao han dao sua emendatzeko. Eitten dau bigarrenak: ba..nere aitta polizia da ta lapurretia dauanian 10 minutu baino lehenao han dao lapurra harrapatzen. Halako batian eitten dau plaentxiarrak eze: Ba....nere aittak udaletxian eitten dau lana 14.00 urtetzen dau ta 12:00xetarako etxian dao.

Gururu



Limpiezas

Trejo, S.L.

Rekalde, 30 behea
Tel.: 943 75 25 57
Faxa: 943 75 25 56
20.590 SORALUZE

Limpiezas
industiales

Goizeko 6:30-etatik
aurrera zabalik!!

Gosarixak eta
pintxo
goxo goxuak !!



Errabal kalea, 15 Tfnoa 943 75 18 34

Larunbatean Korrika Apostua

Karakate Jeitsiera; Etxebarri eta Txakarra zein baino zein!

Asteburu honetan jokatu da, Etxebarri (Run Runner) eta Txakarra (Coyote)ren arteko korrika apostua.


Ludotekako prentsaurrekoa

Giroa bero bero dago. Berotasun horren erakusgarri dira, Txakarra eta Etxebarri asteazkenean Ludotekan eman zuten prentsaurrekoan, herriko (Pil-pilean) eta eskualdeko prentsari (Arrate Irratia, Goienkaria, eta abar eta abarri) egindako adierazpenak eta prentsaurrekoan zehar gertatu zirenak. Txakarra korrikalari handiaren hitzetan, “Etxebarri ez dauka aukerarik. Zeletaraino atzetik jarraituko dotsat eta Zeletan erasua joko dot. Lehenengo aldixa izango da Koyotiak Run Runnerrari irabazten dotsana”. Etxebarri berriz, seguru dago Txakarraren ahultasunarekin. “Seguru nago Txakarra lehenengo erromaran geldituko dala katiatuta. Bip ,bip!Gainera aurreko gabian afarittara gobidatzeko asmua daukat.Bip, bip!”.

Adierazpen hauek egin ostean, ikusleek ezin izan zioten kirolarien ondoan egoteko tentazioari eutsi eta prentsaurrekoa amaitu aurretik, miresleek muxuka salto egin zieten gainera (batez ere emakumezkoek). Arazoak izan bazituzten ere, azkartasunari esker, miresleen atzaparretatik ihes egitea lortu zuten bi kirolariek.

“Tongo”egingo duten beldurra

Begibistako lesio arriskuaz gain, “tongo” egingo ote duten beldurra ere zabaldu da tabernetako apostuak egin dituen jendearen artean. Azpimarratzekoa da, jendeak konfidantza handiagoa erakutsi duela Txakarrarendako, Etxebarrirendako baino, horrela, jokatu duen jendearen %70 baino gehiagok, Txakarraren alde egin du eta %30 baino



Bi korrikalariak prentsaurrekora urreratu zen jendeariautografoak sinatzen.

“Zeletaraino bere atzetik juango naiz eta Zeletan joko dot erasua. Erreza izango da” *Txakarra*

“Seguru nago Txakarra erromaran baten geldituko dala katiatuta. Bip,bip!”
Etxebarri

gutxiago izan dira Etxebarriren alde egin dutenak.

Bestalde, apostuetan batutako diruari dagokionez, kopuru osoaren %30a Pil-pilean elkartearendako izango da eta gainontzekoa irabazlearendako.

Hanka azkan sartzen duen lehenengoa garaile

Arratsaldeko 19:00etan puntu puntuan hasiko da lasterketa. Korrikalariak, “ordu erdi inguru” beharko dute ,Karakatetik, Plaza Berrian izango den helmugaraino heltzen. Plaza Berrira heldutakoan, erdiko iturriko azkan hanka sartzen duen lehenengoa izango da garailea. Proba amaittu ostean, trikitalari eta bertsolariak ere izango dira eta garaileari, merezi duen Txapela jantziko diote.

Iñarraren txorixoak irabazlearendako

Iñarra Harategiak, ikuskizunaren handitasunaz liluratuta, Kilo bat txorixo emango dio irabazten duen korrikalariari. Onenak irabazi deixela!

Argitarapen honen edizioko laguntzaile:
En la edición de esta publicación colabora:

kutxa
zuri esker
gracias a ti

MAPFRE
MAPFRE SORALUZE

JUAN LUIS IBARZABAL ARRIETA
JULIA IBARZABAL ARRIETA

Gabolats, 5 b
Tel.: 943 75 16 58 - 943 75 30 12
Eskuko telfnoa: 649 49 79 59 Faxa: 943 75 16 10
20.590 SORALUZE

Kontu zaharrak

Arane izeneko polikiroldegia (izen hau, ingurutik oso gertu zegoen iturri batetik dator) eraikita dagoen lekuan, garai batean “Fabrika zarra” zegoen, gure herriarentzat erai-kin esanguratsua izan zena. Palazio itxura zeukan, XIX. mendean eraikia izan zen eta lantegi haietan lan egin zuten ehundaka beharginendako, egindako ahalagin guztien ikurra zen. Euskalduna izena zeukan eta baita historia luzea ere; XIX. mendeko azken gerran (1973-76) Gipuzkoako Banaketaren lantoki ofiziala izan zen. Gaur egunean, bere izena ere ahaztu dute herrian. Zer egingo diogu ba... Orain, Euskalduna entzuten dugunean, burura etortzen zaiguna Bilbon egon zen ontzi-enpresa da, eta han izena gogoan mantentzen jakin duten bitartean, guk geurea ahaztu egin dugu, agian hura baino zaharra goa izango zen izena.

Baina utzi ditzagun oroitzapenok alde batera eta ekin diezaiozun... sirenaren kontuari. Ez gara nagusi gutxi izango, sakon guztian (Arratetik Elosuraino ziurrenik) entzuten zen “fabrika

zaharreko” sirenaren soinu karrankaria gogoratzen dugunak. Herriko hizkeran, “fiua” esaten zioten. Egunean zenbait aldiz jotzen zuen era jarraian, ordu laurdeneko tartearekin; goizean, eguerdian eta arratsaldean. Eta lan-txandak izaten zirenean, baita goizeko seiretan ere. Modu horretan, enpresako langileen sarrera eta irteera orduak markatzen zituen. Baina herriko beste lantoki batzuetan ordutegi antzekoa zuten beharginendako ere erreferentzia zen.

Zehaztasun xeble bat: kalean zehar zebiltzan edo baserrien atarrietan egoten ziren txakurrak, otsoak bezela uluka hasten ziren Euskaldunako sirenak jotzen zuenean. Dirudienez, belarriak mintzen zizkien eta ezin zuten zuten soinu hura jasan. Alferrikako ahalgina egiten zuten burua jaso eta ulu luzea eginez, Euskaldunako sirena ixiltzen zen arte. Momentu hoietan txakurrek ez zuten zaunkarik egiten; ahaztu egin izan balitzaie bezala.



Hanka sartziak zuzentzen




Guk ez zekigun!Guk ez genkixen
Zuk ez zekizun!.....Zuk ez zenkixen
Guk ez zeukagun!.....Guk ez geunkan
Guk ez zotsagun!.....Guk ez gontsan

Herrixan oso errotuta dare aditzok, batez be gaztione artian. Oso errez hartzen dira biziak eta zoritxarrez horrek dira geratzen diranak. Geure guraso eta aittita amamak ez zittuen-gaizki erabiltzen...seguru!! Geuk maisu-maistregandik asko ikasi biharra dakagu. Euskara jatorra eta garbixa da geuretako eta ondorengueandako nahi doguna ezta? Ba zaindu deigun euskeria eta jantzi geure burua!

Eta literaturaz zer?

Ordaina zor nizon

Egilea: Joxemari Urteaga
Bilduma: Literatura 214
Orriak: 280
Salneurria: 2500 pta
Argitaletxea: Elkarlanean



Ezustean harrapatu gaitu Joxemari Urteagak bere estreinaldi honetan, polizi istorio bikainak idatzi eta, puzzle bateko piezen gisa, eleberriz gustagarri batean biribildu baititu osagai guztiak.

Galdera: Polizi nobela baten izenburua. 943 75 13 04

Aurreko zozketako irabazlea:

Gorka Salaberria eta Mikel Hernandez “Baina bihotzak dio”

IÑAKI IÑARRA

HARATEGI ETA URDATEGIA

Kalebarren 29
Tfnoa 943 75 12 49
Soraluze

Mendata taberna

Berezitasunak:
Txipiariak, Barazki Menestra, Gixauak...
Asteburuan plater konbinatuak
Enkarguak etxerako (bazkariak eta afariak)
Kalebarren, 5
Tfnoa 943 75 13 87



Barra kargadore automatikoak
eta makina bereziak

ETXEHUN, S.A.L.

Mendiola Industrialdea 14-5

Tfnoa 943 75 18 91

Faxa 943 75 24 58

E - maila: etxehun@teletel.es

etxehun@euskaltel.net

20590 SORALUZE

Gipuzkoa



PASCUAL CHURRUGA, s.a.

Hotzian eta beruan
jotako tornilluak

Telef. 943750006 eta 943751600 Faxa 943752461

E-mail: general@pascualchurruga.com

Errekalde 21

20590 SORALUZE



**S.A.
Industriak**

Eskulanetarako tresnak

Industrialdea, 17 - 20590 Soraluze

Tlfonoa: 943 75 20 00 Faxa: 943 75 19 80 E-maila: fer@nexo.es



aras S.A.L.

DIN arauak jarraituz eta
zehaztasun handiz egindako torniluak

Industrialdea 20-21
50 Posta Kutxatila

Tfnoa 943 75 17 36 - 75 18 03

Faxa 943 75 22 95

20590 Soraluze

Amodio gutunaren lehiaketa

AURKEZTEKO EPEA ETA TOKIA:

Soraluzeko Udalean
aurkeztu beharko dira edo
27 posta kutxatilara bideratu,
apirilaren 8a baino lehen.

EPAIMAHAI:

Udaleko Euskararen
Aholku Batzordeko 3 kide.

SARIAK:

- 1.saria: 120 euro
- 2.saria: 90 euro
- 3.saria: 60 euro



markos untzeta gaur basamortuan

CD berria kalean!

Gaztelupeko hotsak
Tel.: 943 753 016
e-posta: gaztelupeko@hotsak.com

94 p.k.20590 SORALUZE / Tel.: 943 75 30 16 / Faxa: 943 75 01 39 / www.hotsak.com / e-posta:gaztelupeko@hotsak.com



Peugeot 307. Ez da zenbaki bat bakarrik
2002 urteko autoa da Europan



Ze puntutaraino izan dezakezu konfidantza auto batekin? Punturik goreneneraino. Batu eta irabazi egin dugu. 6 Airbag (aurreko inteligente 2, alboko bi eta kortina moduko sabaiko bi, aurreko eta atzeko bidaiariendako) eta ABSez gainera, zure eskura jartzen ditugu segurtasuneko elementurik aurreratuenak:

EVA (larritasunezko frenatuendako laguntza), REF (frenatuaren banaketa elektronikoa), ECS (garondoko lesioen aurkako babes sistema), oiñ-jartzeko aktiboa,

Norabide habe atzeragarria eta ESP (orekaren kontrol dinamikoa). Xehetasun eta kontrol osoa.

ETORMOBIL
Otaola etorbidea 22
Tel.: 943 20 09 66
EIBAR

307 
PEUGEOT